

Ondarroako irudiak sarean

Maiatzaren 15ean Urtza Alkorta atxilotu zuen Ertzaintzak Ondarroan, Espainiako Auzitegi Gorenaren aginduz. Ehunka herritarrek bere inguruan sortutako “herri harresiaren” irudi ikusgarriak bildu dituzte Axier Lopez eta Lander Arbelaiz kazetariak ARGIAren webgunean.

| URKO APAOLAZA AVILA |

ERTZAINZAK 30 furgoneta baino gehiago eta ehunka agente mobilizatu zituen maiatzaren 15ean Urtza Alkorta atxilotzeko. Ondarroarrari bost urteko kartzela zigorra ezarri dio Espainiako Auzitegi Gorenak, ETAko kideei laguntzeagatik. Alkorta 2010ean atxilotu zuen Ertzaintzak eta haien esku egon zen bitartean tratatu txarrak jasan zituela salatu zuen: “Azkenean, beraiek pentsatua dutena onartzen duzu, amaitzeko desiratzen zaudelako”, azaldu zuen.

Ondarroan “herri harresia” osatu zuten ehunka lagunek Alkorta inguruan, desobedientzia zibil eta protesta baketsuarekin atxilotoketa zailtzeko. Hiru ordu eta erdiz aritu zen Ertzaintza jendea Alamedako Zubitik ateratzen, arrastaka eta gorputz atalak bihurtuta. Hainbat pertsona ere atxilotu zituzten erresistentzia horren ondorioz.



AXIER LOPEZ

Ehunka lagun bildu ziren Ondarroako Alamedako zubian Urtza Alkortaren atxilotoketa erresistentzia pasiboaren bidez zailtzeko.

ARGIAko kazetari Lander Arbelaiz eta Axier Lopez zubian izan ziren, gertatzen ari zena jasotzen,

eta irudi horien bilduma ikusgai dago euren blogetan.

Axier Lopezek bideoak kronologikoki antolatu ditu *Begizta.net*-en (ttiki.com/50643) eta horietan antzeman daiteke polizia operazioaren tamaina, Aske Gunean bilduta zeuden herritarren hasierako erreakzio eta kantak, Alamedako zubia husteko ertzainen ahaleginak eta baita Urtza Alkortaren atxilotoketa unea ere.

Bestetik, Lander Arbelaizek Aske Gunean gertatzen ari zenaren etengabeko jarraipena egin zuen hainbat gau eta egunez. Kronikak, elkarrizketak eta irudiak paratu ditu *Taupadak* (ttiki.com/50644) blogean. ■

Atxilotoketa uneko hainbat bideo



6:44. Eguna argitzearekin, Ertzaintzaren etorrera iragarri zuten megafonia. Jendea zubira igo zen euripean. (Iraupena: 3:47 minutu).



9:15. Ertzaintzak banan-banan atera zituen ehunka herritar zubitik. Erresistentzia eta tentsio une handiak bizi izan ziren. (Iraupena: 3:09 minutu).



9:45. Urtza Alkorta atxilotu arteko azken momentuak erakusten dituen bideoa. Elkartasun oihuak eta urduritasuna. (Iraupena: 6:36 minutu).



10:47. Mikel Etxaburu ondarroarrak “zubi harresiaren” balorazioa egin zuen aldameneko karpan, txalo artean (Iraupena: 5:23 minutu).